

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko uztailaren 1ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

17.- DOLARIAGA KALEA EGOKITZEKO OBREN II. FASEA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Dolariaga kalea egokitzeko obren II. fasea. Behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko apirilaren 14an, Tokiko Gobernu Batzarrak, Dolariaga kaleko barrizatze obren II. fasea egiteko proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea eta deialdia kaleratzea erabagi eban.

Bigarrena: Kontratazino prozedura honen deialdia lehiaketa ireki bidez egin da eta tramitazioak preminatasun izakera dauka.

Hirugarrena: 2010eko maiatzaren 6an (84. zbk.), Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan lehiaketa irekiaren lizitazio iragarkia.

Laugarrena: Aitatutako kontratazino prozeduran, proposamenak aurkezteko epe barruan, hamar enpresa aurkeztu dira:

- UTE Asaser SA - Grupo Ansareo AEB S.L.
- Zabaldú Construcciones, S.L.
- Construcciones Eder S.A.
- Vda. de Sainz, S.A.
- Urre, S.A.
- Jose Antonio Olabarri Construcciones S.L.
- Laneder Construcciones, S.L.
- Construcciones Intxausti, S.A. - Leandro Gómez S.L.U.
- Balzola Construcciones
- Construcciones Morga S.L.

Argudioak

Bakarra: 2010eko bagilaren 30ean emondako txosten teknikoari erantsita doan puntu-kopuruen taularen arabera, hauxe izan da eskaintza bakotxak lortutako puntuazioa:

Eskaintzak	Hobekuntzak (obra gehiketak) 0-35	Bestelako hobekuntzak 0-15	Obra egiteko epea (6 hilabete) 0-20	Obraren metodologia 0-30	Guztira
UTE Asaser S.A. - Grupo Ansareo AEB S.L.	25	6	20	10	61
Zabaldu Construcciones, S.L.	35	3	6,7	15	59,7
Construcciones Eder, S.A.	30	7	10	20	67
Vda. De Sainz, S.A.	0	8	6,7	15	29,7
Urre, S.A.	29	3	6,7	20	58,7
Jose Antonio Olabarri Construcciones, S.L.	17	2	13,3	15	47,3
Laneder Construcciones, S.L.	16	0	11,7	15	42,7
Construcciones Intxausti, S.A. - Leandro Gómez SLU	16	2	11,7	20	49,7
Balzola Construcciones	27	3	6,7	15	51,7
Construcciones Morga S.L.	0	12	20	10	42

Aurkeztutako dokumentazinoa aztertu ondoren, kalifikatzeko sistema kontuan harturik eta oker edo hutsik izan ezean, *Construcciones Eder S.A.* enpresek lortu dau punturik gehien.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrek:

LEHENENGOA: Egindako proposamenari jarraiki, Dolariaga kalea egokitzeko obretan II. fasea behin-behinekoz esleitzea, era honetan:

ENPRESEA: CONSTRUCCIONES EDER, S.A. (IFZ: A-48224257)

PREZIOA: 646.071,86 € (BEZ kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 103.371,50 €-koa da. Guztira, 749.443,36 €.

EXEKUZINO EPEA: 135 lanegun (5 hilabete)

KONTRATU HONETAN LAN EGINGO DABEZAN LANGILEAK: 24 langile. Horneetatik 3 hartuko dira INEM-etik.

BIGARRENA: Kontratuan jaso beharko dira enpresek aurkeztutako hobekuntza guztiak.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea, behin betiko esleipena egin ahal izateko, jarraian adierazoten dan jarduketea egin beharko dauela:

- Behin betiko bermea jarri (32.303,59 €).

Horretarako hamar (10) laneguneko epea eukiko dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko uztailaren 5ean.

ONETSIA
ALKATEA